



❖ HERNANIKO KRONIKA-
10 GARREN URTEURRENA
**Kantuz, Ozenki eta
Goiz Eguzki
abesbatzen
emanaldia,
Milagrosan**

Hernaniko Kronikak hamar urte bete ditu aurten, eta urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi ari da egiten urte osoan zehar. Ostiralerako, Hernaniko hiru abesbatzen emanaldia antolatuko du. Kantuz, Ozenki eta Goiz Eguzki abesbatzek abestuko dute, Milagrosan, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. ||

❖ AMHER

Elkarteak langile bat behar du, eta kurrikuluma bidaltzeko epea zabalik dago

Hernaniko AMHER elkarteak langile bat behar du, elkartearen lanak betetzeko. Langileak lanpostuari egokitutako formazioa izan behar du, inmigratioarekin lotutako eskarmen-tua eta gizarte gaiekiko atxikimendua. Lanpostuan ondorengo betebeharrak izango ditu: pertsona etorkinekin aholkulari eta dinamizatzaile lanak egitea, elkartearen planak garatzeko laguntza eskaintzea eta bulego eta idazkari lanak egitea. Goizeko 09:00etatik 13:00etara egin beharko du lan. Eskaera eta kurrikuluma azaroaren 30a baino lehen aurkeztu behar da, AMHERren egoitza (Latsunbe 42, Transpacar) edo amher-sos-racismo@hotmail.com helbidean. ||

❖ EREÑOTZU

Bertso afarirako txartelak, salgai

Udazken kulturalaren barruan, bertso afaria izango da ostiralean Ur-Mian, Maialen Lujanbio eta Unai Agirreekin. Txartelak salgai daude Ur Mian eta Txili tabernan, 20 euroan, eta baita 625 703 656 telefonoan ere. ||

Sahara herriari elkartasuna adierazteko bi mozio onartu ditu Udalak, eta ostiralerako kontzentrazioa deitu du

Mozioak Giza Eskubide Batzordeak onartu zituen, besteak beste, El Aaiunen azken asteetan gertatutakoa salatzen. Kontzentrazioa ostiralean izango da, Plazan, eguerdiko 12:00tan.

SAHARAKO herrian azken asteetan gertatutakoa salatzen, eta Saharari elkartasuna adierazteko bi mozio onartu zituen astelehenean, Giza Eskubide Batzordeak, horietako bat Frente Polisarioaren Euskadiko Ordezkaritzak aurkeztutakoa.

Duela zenbait aste, milaka saharar, Mendebaldeko Saharan okupatutako hirietatik atera eta protesta kanpalekuak antolatzen hasi ziren. Kanpaleku horien helburua manifestatzeko eta adierazpen askatasuna izateko aukera edukitzea zen. Udalaren mozioan adierazten dutenez, iristen diren berrien arabera, kanpaleku horiek Marokoko poliziaz inguratuta daude, eta ez diete ibilgailuei kanpalekuetara sartzen uzten: «bertara sartzen direnak atxilotu egiten dituzte. Marokoko militarrek Saharako ekintzaileak tirokatu dituzte, gorpua bahitu eta lurperatu egin dituzte. Horrez gain, Marokoko polizia eta armada Saharako kanpalekua

husten ari dira, bertan dauden errefuxiatuen aurka indarkeria erabiliz. Azken berrien arabera, gutxienez Saharako 14 ekintzaile hil direla baieztatu dute».

Mozioan azaltzen denez, Hayako Nazioarteko Justizia Auzitegiak eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak emandako ebazpenek onartu egin dute saharar herriak bere etorkizuna erabakitzeke duen eskubidea: «Saharar herriak Nazio Batuen ebazpen guztiak bete ditu, eta erreferendum bidez bere etorkizuna erabakitzeke prest jarraitzen du. Marokok gatazka hori nazioarteko polikaren agendatik kanpo uztea lortu du, nazioarteko komunitatearen laguntzari esker, eta herri horren okupazioaren arduraduna den Espainiako Estatuaren pasibotasunari esker».

Udalak egindako ebazpenak 9 puntu ditu

Besteak beste, hau guztia kontuan izanda, Udalak

mozioan egindako ebazpena ondorengo da:

1-Protesta baketsuan parte hartzeko okupatutako hirietatik irten ziren 20.000 sahararrei elkartasuna adieraztea, eta Marokok eta haren bazterketa politikak saharar herriaren giza eskubideen aurka egiten dituen urradura larriak salatzea.

2-Gure gaitzespenik handiena adieraztea Marokoko armadaren esku-hartzearen aurka; batez ere, azaroaren 8an, astelehena, egin zenaren aurka, bertan gutxienez 14 saharar hil baitzituzten

3-Marokoko agintariei manifestari baketsuen aurkako ekintza basatiak berehala amaitzeko eta saharar herriaren aurkako errepresio gero eta gogorragoa bukatzeko eskatzea.

4-Saharar herriari gure babes osoa adieraztea, eta Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoari gure eskuetan dagoen guztian laguntzeko konpromisoa berrestea.

5-Europar Batasunari Marokoko Erresumarekin duen Bazkide Akordioa bertan behera uzteko

eskatzea, giza eskubideen 2. artikulua urratzen duelako.

6-Marokok nazioarteko legedia errespetatu ezan eskatzea, bereziki autodeterminazio erreferenduma egitearen alde Nazio Batuek xedatutako ebazpenak, Mendebaldeko Sahara deskolonizatzeko prozesua amai dadin. Horren harira, indar okupatzailea, Maroko, autodeterminazio eskubide hori garatzera behar dezaten eskatzea.

7-Azken gertakariak ikusita, Udal honek Marokoko erakunde guztiarekin dituen harremanak etetea erabaki duela adieraztea, eta herrialdean dauden Marokoko ordezkariak erabaki horren berri ematea. Halaber, Euskal Herriko hainbat erakunderi neurri berak har ditzaten eskatzea.

8-Herriarrei udaletxearen aurrean biltzeko dei egitea, ostiralean, 12:00etan, Plazan.

9-Azken gertakariak ikusita, Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoari laguntzeko gure eskuetan dagoen guztia egingo dugula jakinaraztea. ||

❖ NATZA-HITZALDIA

Herrigintza ezkertiarren inguruan, hitzaldia bihar

‘21garren mendeko herrigintza’ izena du hitzaldiak, eta Juan Karlos Alduntzin, J. Manuel Sanchez Gordillo eta Marian Beitialarrangoitia ariko dira hizlari lanentan; 19:30etan hasita.

HERRIGINTZARI buruzko hitzaldia izango da bihar, Udaleko Areto Nagusian, Natzak antolatuta. Bertan azalduko dute Udal ezkertiar eta aurrerakoi batek herrigintzan zer egin beharko lukeen.

Horretarako, Marinaleda (Sevilla) eta Hernaniko kasuak aztertuko dituzte. Hitzaldia arratsaldeko 19:30etan izango da, eta hiru hizlari hartuko dute parte, tartean Hernaniko Alkateak.

Aurkezle lanak Juan Karlos Alduntzinek egingo ditu. Udalbiltzan auziperatua izan da, eta Pasaiako Alkate izan zen 1999-2003 bitartean. Ondoren, J. Manuel Sanchez Gordillok hitz egingo du,

Marinaledako Alkateak. Sanchez Gordillo SOC Batzorde Eragileko eta IUko Batzorde Politiko Feraleko kidea da. Hirugarren hizlaria berriz, Marian Beitialarrangoitia, Hernaniko Alkatea izango da. ||

Kixkal eta Akeit
tabernetan
Saria
2.000 €
batina duen bidaiari bat

kafea edo pintxo bat hartuta, zozketa batean parte hartuko duzue

VGALDETZO
Jatetxea

BAZKARIAK
ETA
AFARIAK

Ereñotzu auzoa
40020 Hernani (Gipuzkoa)
Tel: 943 55 02 40

MARI FES

ARRANDEGIA

ORDUTEGIA
GOIZEAN: 8:00 - 14:00
ARRATSALDEAN: 18:30 - 20:00

NAGUSIA 36 ☎ 943 550 489

TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● Egunez: **Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 ● **Gauzez**: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Giro goibela eta umela izango da. Euria egingo du eta tarteka zaparradak botako ditu. Tenperaturak behera egingo du, 8-12°C ingurura.

BIHAR Giro nahasia eta aldakorra izango da. Noizean behin euria egingo du, eta trumoiak ere jo dezake. Tenperatura berdin mantenduko da.

❖ MENDIRIZ MENDI-MENDIZALE ASTEA

Esloveniako paisaiak erakutsiko dituzte gaur, Telletxea eta Eguzkizak

Ostegunean herritarrek egindako zenbait proiektio jarriko dituzte, eta ostiralean Argazki Lehiaketako proiektioa eta sari banaketa egingo dituzte.

MENDIRIZ Mendi elkarteak antolatutako Mendizale Astea gori-gorian da. Gaurkoan Esloveniako paisaiak ikusteko aukera izango dute Biterira hurbiltzen diren herritarrek. Proiektioa Imanol Telletxeak eta Maria Eugenia Eguzkizak egingo dute; azaldu dutenez, Esloveniako orografia ikusgarria erakutsiko dituzte: mendiak, baso zeharkaezinak, aintzi-

rak... eta baita Alpe Juliotarren Triglav mendiko igoe-raren kontraesanak ere. Proiektioa arratsaldeko 19:30etan izango da.

Herritarrek egindako proiektioak, bihar

Bihar herritarrek izango dira protagonista Mendizale Astean. Pilar Azpeitiak *Dolomitak 2010* proiektioa jarriko du, eta Aitor Dorronsorok, *Afrika Hegoaldea*

Bizikletaren iparrear. Bi proiektioak Biterin izango dira.

Argazki Lehiaketako proiektioa eta sari banaketa

Azkenik, Astea borobiltzeko, Argazki Lehiaketarako jaso dituzten argazkien proiektioa egingo dute, eta baita Elkarteak urtean zehar egindako argazkien erakusketa ere. Ondoren, Lehiaketako sari banaketa izango da. ||

❖ GOIZ EGUZKI



Goiz Eguzkiko kideak egun pasa joan ziren Azagra eta Lodosara

Goiz Eguzkiko kideak egun pasa joan ziren joan den azaroaren 5ean, Azagara. Ibilbidean zehar Lodosan geratu ziren, pikillo-piper kontserba bat ikustera. Ondoren, Lodosan zehar ibili ziren, eta Eliza, herriko Plaza eta pikilloaren monumentua ikusi zituzten. Segidan Carcar bodega bisitatu zuten, eta bazkaltzera Azagara joan ziren. ||

❖ AEK



Besabitik Mulixkora mendi buelta egin zuten, 20 lagunek

AEKko kideek mendi irteera egin zuten joan den larunbatean, Besabitik Mulixkora. Ikasle, irakasle eta inguruko haur zein heldu bildu ziren, 20 lagun inguru, mendi buelta egitera. Mikel Arrieta historialariaren azalpenak ere jaso zituzten ibilbidean zehar. ||

❖ ERREMONTA-AZYSA BINAKAKO TXAPELKETA

Urriza eta Etxeberria IIIak markagailuari buelta eman, eta txapelketako aurreneko garaipena lortu zuten atzo



Azysa Binakako Txapelketako bigarren partidua jokatu zuten atzo Zeberio II-lonek eta Urriza-Etxeberria IIIak, B taldekoa. Zeberio Ila eta Ionek partidua hasieratik kontrolatu zuten, eta azken tantura 37-31ko aldearekin iritsi ziren. Hala ere, Urriza eta Etxeberria IIIak 1-9ko partziala egin, eta 38-40 irabaztea lortu zuten. ||

❖ ELKARTE ARTEKO MUS TXAPELKETA

Final laurdenak ostegunean jokatu dira, Xalaparta elkarteak

Hernaniko Elkarte Arteko Mus Txapelketa aurrera doa, eta aurreneko fasea jokatu, ostegunetik aurrera final laurdenetako partidekin hasiko dira. Karobiak Txantxagorri A elkartearen kontra jokatu du, Gure Txoko Ak Elizatxo Aren aurka, Elizatxo Bk Txantxagorri Bren aurka, eta azkenik, Elur Txori Bk Xalaparta Bren kontra. ||

❖ XAKE TXAPELKETA

Breogan dijua aurrena sailkapenean, Martiarena eta Blancoren aurretik

Azken txanpan da Hernaniko Xake Txapelketa, eta sailkapen nagusian lehia nabarmena da. Aurreneko postuan Breogan dijua, 4,5 punturekin, baina bigarren eta hirugarren postuan puntu erdi gutxiagorekin daude Martiarena eta Blanco. Igandean bosgarren jardunaldia jokatu zen Zumitzan, eta emaitzak ondorengoak izan ziren: Romero 0-Breogan 1; Martiarena 1-Ixidro0; Jon Altuna1-Navascues 0; Elozegi0-Erdozio1; JRAltuna0-Andreas1; Lizaso0-Goikoetxea1; Gastesi0-Arriaran1; Armendariz0-Arrieta1; Sito0-Coffie1; eta Cortes 1-Izaro0. ||

❖ GALDUTAKOAK

Betaurrekoak aurkitu dira, Zinkoenean

Atzo betaurrekoak aurkitu zituzten Zinkoeneako petrilean. Jabeak Zinkoenea tabernatik pasa behar du, jasotzera. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Motoa salgai. T-MAX black max, oso ondo zaindua (5500€). Deitu: 630 432 781.

Pisua alokagai: Antziolan (residentziala), 2 logela, saloi-komedia, sukaldia, komuna (kalefakzioa) eta garaje itxia. Hutsik. 800€ (abala). Deitu: 600 60 97 54

Ingelesko eskola partikularrak ematen ditugu. Ingeles filologoa eta tituludun natiboa. Maila guztiak, Business English, elkarrizketa... Deitu: 652 704 995 / 639 371 824

Kapritxozko etxea salgai Santa Barbara auzoan. 3 logela, 3 komun, saloi handia, sukaldia. Behean soziedadea eta ganbara logela bihurtuta, komunarekin. Garajea (3 kotxe). Prezio negoziagarria eta erreztasunak ordainketan. Deitu: 629 682 827.

Kotxea salgai, Peugeot 206a. 9 urte ditu (2.000 euro). Deitu 943 55 04 79.

Altzariak salgai: 2 ohe (90cm), mesilla, sinfonier eta armairu / 2 butaka, 2 armairu eta "tresillua" (Haritza, rustikoa). Merke eta egoera onean (1500€). Deitu: 649 006 061.

Audi TT FSI salgai (2000cc, 200zaldi, 2007urtekoa). Oso egoera onean, beti garajejan. 26.500€. Deitu: 658 058 330.

Pisu polita salgai Karabalen. 2 logela, dena kanpora, guztiz berritua (246.000€). Deitu: 658 712 923.

Pixua salgai erdialdean eta toki lasaiean. 2 gela dauzka eta denak kanpoaldera ematen du. Prezioa: 32.000.000pza. Deitu: 619 813 357

Duplex-a salgai Lizeaga kalean, oso egoera onean, argitsua, 120m2, 3 logela, 2 komun, trasteroa. 390.000€ Deitu: 609 823 472

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzieta 2, behe. Tel. 943 55 32 78.

Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)